

EDITORIALA

Beste hiruhilabete bat, luzea benetan, baina aldi berean oparoa. San Sebastian eguna, Kaldereroek ihauterien etorreraren berri eman ziguten, eta horiekin batera Ituren eta Zubietan bisitaldia. Ezin ahaztu Lauaizetan antolatu zen mozorroen desfile dibertigarria. Martxoak 8, Emakume Langileen eguna, ere presente egon zen bai klasean, bai patioan. Bisitak ere izan ditugu. Horien artean, Caldas de Reiseko Aquis Celenis institutotik etorri diren lagunak, gurekin aste bete pasatzera. Orain gure zain daude hor.

Baina zerbait azpimarratu behar bada, udaberri honetan ikasle zein irakasle askoren elkarlanak ekarri duen EUSKARAREN inguruko aldarrikapena: "20 orduz euskaraz Intxaurrondon" antolaketa barruan egindako Gazteen Korrikak letra handiz idatzi zuen euskararen aldarrikapena, auzoa kantaz eta kolorez bete genuen-eta. Giroa ezin hobea. Harro egon gaitezke.

Gazteen Korrika nahikoa izan ez balitz, apirilaren 4an Korrika ofizialean lekukoa hartu genuen Lauaizetara etorritako ikasle galiziarrek lagunduta. Euskararen hotsa aditu genuen kalez kale. Espero dezagun hots horren oihartzuna ez ixiltzea.

Bai, oparoa izan da. Ezin ukatu.